EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO
2017 AZA. NOV. 23
7687
ERREGISTRO OROKORRA REGISTRO GENERAL

LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen dugun taldeok honako **ERDIBIDEKO ZUZENKETA** hau egiten diegu Elkarrekin Podemos Taldeak aurkeztutako Legez besteko proposamenari. 11\11\02\01\0264 espediente zenbakia duenari, **Saudi Arabiarekiko harreman politikoei eta hari armak saltzeari buruz**, eta EH Bildu Taldeak aurkeztutako Interpelazioaren ondoriozko mozioari, 11\11\03\00\0037 espediente zenbakia duenari, **Bilboko portutik ontziek armamentu militarra garraiatu ez dezaten hartu asmo dituen neurriei buruz.**

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

Eusko Legebiltzarrak bere konpromiso irmoa adierazten du giza eskubideen alde eta elkartasuna adierazten du Yemeneko populazio zibilarenganako, Saudi Arabiaren eraso militarra jasaten baitu, zeinak milaka hildako eta krisi humanitario sakona eragin dituen zenbait urtetik hona. Halaber, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hautsi dezala harreman politiko edo instituzional oro Saudi Arabiako ezein organismo ofizialekin. Orobat eskatzen du bertan behera uzteko Eusko Jaurlaritzaren ezein aukera estrategiko Saudi Arabian.

A LA MESA DEL PARLAMENTO

Los grupos abajo firmantes presentamos la siguiente **ENMIENDA DE TRANSACCIÓN** a la Proposición no de Ley del grupo Elkarrekin Podemos, con número de expediente 11\11\02\01\0264, **Relativa a las relaciones políticas y venta de armas a Arabia Saudí**, y a la Moción consecuencia de interpelación del grupo EH Bildu, con número de expediente 11\11\03\00\0037, **Relativa a las medidas que se propone adoptar para que las embarcaciones no transporten armamento militar desde el puerto de Bilbao.**

ENMIENDA DE TRANSACCIÓN

El Parlamento vasco manifiesta su firme compromiso en la defensa de los Derechos Humanos y declara su solidaridad con la población civil de Yemen, que sufre una agresión militar por parte de una coalición de países liderada por Arabia Saudí, que ha causado miles de muertes desde hace varios años y una profunda crisis humanitaria. Así mismo, insta al Gobierno vasco a romper cualquier relación política o institucional con cualquier organismo oficial de Arabia Saudí, así como a suspender cualquier opción estratégica del Gobierno vasco en Arabia Saudí.

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamento.euskadi.net

Eusko Legebiltzarrak erabat errefusatzen du Bilbo gerran dauden edo, beren mugen barruan zein kanpoan, giza eskubideak hausten dituzten herrialdeetara doazen arma-kargamentuen irteera-ate izatea. Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunen artean koka dezala portuen eskumena bereganatzea, armen merkataritza mugatu dezakeen barne araubidea bere gain jasoko duena.

El Parlamento vasco manifiesta su máximo rechazo a que el Puerto de Bilbao sea puerta de salida de cargamentos de armas con destinos a países en guerra o países que vulneren los Derechos Humanos, tanto en el interior de sus fronteras como fuera de las mismas. Por ello, el Parlamento vasco solicita al Gobierno vasco que sitúe entre sus prioridades conseguir la competencia de puertos, que incluya el desarrollo de una normativa interna que pueda limitar el comercio de armas.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, berez iluna den esparruan gardentasun politikak areagotze aldera, euskal armagintzaren behatoki bat eratu dezala, esparruan diharduten talde eta elkarte sozialekin elkarlanean, horren errealitate zehatza, enpresa arduradunak eta zenbaki gaurkotuak ezagutzeko.

El Parlamento vasco solicita al Gobierno vasco que, al objeto de incrementar políticas transparentes en un ámbito de por sí oscuro, cree un observatorio vasco de la industria armamentística, en colaboración con los colectivos y asociaciones que actúan en ese ámbito, para conocer su realidad concreta, las empresas responsables y sus cifras actualizadas.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio "Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren" abenduaren 28ko 14/2007 Legearen 3.3 artikulua zorrotz bete dezala. Artikuluak hauxe dio: "enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin".

El Parlamento vasco solicita al Gobierno vasco que cumpla estrictamente el artículo 3.3 de la Ley 14/2017, de 28 de diciembre, de Carta de Justicia y Solidaridad con los Países Empobrecidos. El artículo dice lo siguiente: "En sus políticas de promoción y apoyo a las empresas, el Gobierno Vasco no colaborará de ninguna forma con aquellas personas físicas o jurídicas dedicadas a la producción, comercialización y financiación de armas".

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laguntza lerro berria bideratu dezala, euskal enpresen material militarraren ekoizpena erabilpen zibilera eraldatzeko aukera errazteko.

El Parlamento vasco solicita al Gobierno vasco que destine una nueva línea de ayuda para facilitar la opción de convertir para uso civil la producción de material militar de las empresas vascas.

Eusko Legebiltzarrak Espainiako gobernuari eskatzen dio Saudi Arabiara eta honek buru duen koalizioaren beste herrialde guztietara armak esportatzeko

El Parlamento vasco exige al Gobierno de España que deniegue los permisos para

baimenak ukatu ditzala, baita ere nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak egiteko arrisku bizia dagoen kasu guztietan.

**2017ko azaroaren 23an**

exportar armas a Arabia Saudí y a todos los países socios de su coalición, así como en todos aquellos casos en los que exista serio peligro de cometer graves vulneraciones del derecho internacional humanitario.

**23 de noviembre de 2017**

EHBildu

ELKARREKIN PODEMOS